

DIRU ITURRIAK

Ordainketa errepikaria: Hilero diru kopuru bat ordaindu behar dute.

Horretarako harpidetza primaren bidez lortuko dugu diru iturria; hots, gure zerbitzuan sartzeko matrikulatu behar izango dira bezeroak. Erabilera prima ere izango dugu kontuan, hau da, irteeretan parte hartzearen arabera ordainduko dute; ez du berdin ordainduko irteera batean parte hartzen duten bezeroak edo bost irteeretan parte hartzen duena.

Horretaz aparte, geure zerbitzuaren finantzazioa lortu ahal izateko, lehen esan dugun moduan, udalarekin aliantza dugu, beraz, haien departamentuetatik ere lortuko ditugu diru iturriak.